

2026ko maiatzaren 28an. Ohiko Batzar Nagusia / Resumen Asamblea General Ordinaria. 28 de mayo de 2026.

2026ko maiatzaren 28an egindako Batzar Nagusian, Kontseilu Errektoreak proposatutako akordio guztiak onartu ziren, eta, horrez gain, Errekurtso Batzordea eta Kontseilu Errektorea berritu ziren.

Alderdi esanguratsuenak azpimarratuko ditugu:

Eroski Koop. E-ren urteko kontuak

Gehiengoz eta aurkako jarrerarik gabe onartu ziren Eroski Koop. E-ren 2026ko urtarrilaren 31n itxitako 2025eko ekitaldiari dagozkion urteko kontuak eta kontu bateratuak.

Informazio ez-finantzarioaren egoerari buruzko memoria.

2025eko ekitaldiari dagokion Informazio ez-finantzarioaren egoerari buruzko memoria gehiengoz eta aurkako jarrerarik gabe onartzea erabaki da, abenduaren 28ko 11/2018 Legean ezarritakoaren arabera, eta Jasangarritasun Korporatiboari buruzko Txostenen Europako Zuzentarauan (CSRD) ezarritakoarekin bat etorritz.

2025eko emaitzen banaketa.

Gehiengoz eta aurkako jarrerarik gabe onartu da proposatutako emaitzen banaketa, erabaki honen bidez:

ERABAKIA:

1) “Estatutu Sozialetan adierazitakoaren arabera, 2025eko ekitaldiaren emaitza positiboen banaketa onartzea, 43.984.271,01 eurokoa, honela:

SOBERAKIN GORDINA*	48.010.785,96 €
2026ko urtarrilaren 31n ordaindu ziren funts propioen parte diren Eroskiren Mendeko Finantza Ekarpenen (EMFE) interesak ordaintzera.	(6.944.119,69) €
Batzar Nagusiak itzultzea erabaki ez duen kapitalei dagozkien kapital-ekarpenei interesak abonatzera, 2025/02/01etik 2026/01/31ra bitarteko aldiari dagozkionak.	(801.516,77)
SOBERAKIN ERABILGARRIA	40.265.149,50 €
<i>Hezkuntza eta Sustapen Kooperatiborako eta Interes Publikoko Beste Helburu Batzuetarako Nahitaezko Kontribuziora (COFIP):</i>	4.026.514,95 €

<i>Nahitaezko Erreserba Funtsera:</i>	8.053.029,90	€
<i>Lan-bazkideentzako erretornura</i>	16.106.059,80	€
<i>Erabilera Libreko Borondatezko Erreserbetara:</i>	12.079.544,85	€

*COFIPa gehituta

Hezkuntza eta Sustapen Kooperatiborako eta Interes Publikoko Beste Helburu Batzuetarako Nahitaezko Kontribuzioa (COFIP) banatzea.

Gehiengoz eta aurkako jarrerarik gabe onartu dira 2025eko ekitaldiko emaitzetatik abiatuta eratutako Hezkuntza eta Sustapen Kooperatiborako eta Interes Publikoko Beste Helburu batzuetarako Kontribuzioa aplikatzeko oinarrizko ildoak.

Onartu da guztira 4.026.514,95 euroko zenbatekoa bideratzea Estatutu Sozialetan ezarritako helburuetara; besteak beste, kontsumitzaileari eta bazkideei zuzendutako prestakuntza eta informazioa, kooperatiben arteko harremanen sustapena, eta hezkuntzaren, kulturaren, lanbidearen eta asistentziaren arloko sustapena. Era berean, zenbateko horren zati bat Eroski Fundaziora bideratuko da.

Baja eman duten bazkideen ekarpenak itzultzeko erabili beharreko gehieneko zenbatekoa zehaztea eta haien itzulketa egitea.

Kontseilu Errektoreak zehaztutako kaudimen-atalasea eta likidezia-atalasea kontuan hartuta, Batzar Nagusiak 13,8 milioi euroan finkatu du erreferentzia-aldian kooperatiban baja hartu duten bazkideen ekarpenak itzultzeko erabiliko den zenbateko osoa.

Era berean, aurreko puntuan ezarritako zenbatekoaren gainerako zenbatekoagatik, eta Kontseilu Errektoreak 2026ko maiatzaren 20ra arte Batzar Nagusiak onartu ez dituen itzulketa-eskaeren zenbateko osora iritsi arte, Estatutu Sozialen 23. artikuluan ezarritakoa aplikatuz, onartzen da ekarpen horiek itzultzea ez erabakitzea.

ERABAKIAK:

- 1) «13.800.000 euroan (hamaika milioi zortziehun mila euro) finkatzea Kontseilu Errektorearen erabakiz 2026ko maiatzaren 20ra arte kooperatiban baja eman duten bazkideen ekarpenak itzultzeko erabiliko den gehieneko zenbatekoa, betiere Batzar Nagusiak horiek itzultzea onartu ez badu».**
- 2) «Kontseilu Errektorearen erabakiz 2026ko maiatzaren 20ra arte kooperatiban baja eman duten bazkideen ekarpenak itzultzea erabakitzea, baldin eta haien itzulketa –partziala nahiz guztizkoa– ez badu Batzar Nagusiak onartu, guztira 13.800.000 (hamaika milioi zortziehun mila euro) euroko zenbatekora arte, Eroski Koop. E.ren Estatutu Sozialen 23. artikuluan ezarritakoaren arabera».**
- 3) Era berean, aurreko puntuan ezarritako zenbatekoaren gainerako zenbatekoagatik, eta Kontseilu Errektoreak 2026ko maiatzaren 20ra arte Batzar Nagusiak onartu ez dituen itzulketa-eskaeren zenbateko osora iritsi arte, Estatutu**

Sozialen 23. artikuluan ezarritakoa aplikatuz, ekarpen horiek itzultzea ez erabakitzea.

Lan-bazkide berrien nahitaezko ekarpenak eguneratzea.

Lan-bazkideen ekarpenak eguneratzea erabaki da, sarrerako kuota gisa **2.473,86 euroko** kopurua eta kapital sozialerako nahitaezko ekarpen gisa **9.895,43 euroko** kopurua ezarriz; beraz, 2025eko uztailaren 1etik aurrerako alta-datarekin bazkidegai gisa sartzen diren bazkideek jarri beharreko nahitaezko ekarpen osoa **12.369,29 eurokoa** izango da.

Eguneratze hori erabaki honen bidez onartu da:

ERABAKIA:

Bakarra. - «Lan-bazkideen ekarpenak zehaztea, sarrerako kuota gisa 2.473,86 euroko kopurua eta kapital sozialerako nahitaezko ekarpen gisa 9.895,43 euroko kopurua ezarriz; beraz, 2026ko uztailaren 1etik aurrerako alta-datarekin bazkidegai gisa sartzen diren bazkideek jarri beharreko nahitaezko ekarpena guztira 12.369,29 eurokoa izango da».

Funts Propio diren EMFEen ordainketa

2007an jaulkitako Mendeko Finantza Ekarpenak dira. Aurten, 2027ko ekitaldirako EMFE horien ordainketa onartu da, eta 2028ko urtarrilaren 31n abonatu dira, erabaki hau onartu ondoren:

ERABAKIA:

Bakarra. - «2007an jaulki ziren eta funts propioen parte diren mendeko finantza-ekarpenen 2027ko ekitaldiari dagokion ordainketa onartzea. Ordainketa horren interes nominala eta zenbateko gordina jaulkipen-baldintzetan ezarritakoaren arabera kalkulatu beharko dira, eta 2028ko urtarrilaren 31n abonatu da».

Batzar Nagusiak itzultzea erabaki ez duen lan-bazkideen kapital sozialerako ekarpenak ordaintzea.

Gehiengoz eta aurkako jarrerarik gabe onartu da 2026ko otsailaren 1ean hasi eta 2027ko urtarrilaren 31n bukatutako aldiari dagokionez diruaren legezko interesaren baliokidea den ordainsari gordina aitortzea baja eman duten eta Batzar Nagusiak onartu ez dituen bazkideen kapitalari egindako ekarpenei.

Sortzapena «Sortutako interesetatik eratorritako ekarpenak» izeneko ekarpen bihurtuz egingo da.

Errekurtso Batzordea berritzea.

Egindako bozketaren ondorioz, honako bazkide hauek izendatu dira Errekurtso Batzordeko kide, Estatutuetan ezarritako gehienez bi urteko eperako:

Bazkide Kontsumitzaileak Personas socias de Consumo	Lan-bazkideak Personas Socias de Trabajo
<i>Titularra/Titular</i>	<i>Titularra/Titular</i>
<i>M^a Teresa Marcos Rodríguez andrea</i>	<i>Pilar Arriola Díaz andrea</i>
<i>Ordezkoa/Suplente</i>	<i>Ignacio Mesanza Olave jauna</i>
<i>Janire Ereño Erdoiza andrea</i>	<i>Ordezkoa/Suplente</i>
	<i>Ibon Inunciaga Carnicero jauna</i>

Kontseilu Errektorea berritzea

Egindako bozketaren ondorioz, honako bazkide hauek izendatu dira Kontseilu Errektoreko kide, Estatutuetan ezarritako lau urteko gehieneko eperako:

Bazkide Kontsumitzaileak Personas socias de Consumo	Lan-bazkideak Personas Socias de Trabajo
<i>Titularra/Titular</i>	<i>Titularra/Titular</i>
<i>Joseba Barandiaran Andueza jauna</i>	<i>M^a Asunción Bastida Sagarzazu andrea</i>
<i>Iker Usabiaga Santamaria jauna</i>	<i>M^a Zulima Valdivielso Martínez andrea</i>
<i>Oxel Etxebarria Etxagibel jauna</i>	<i>Alfonso Muñoz Carro jauna</i>
<i>Ordezkoa/Suplente</i>	<i>Ordezkoa/Suplente</i>
<i>Miren Eraña Uriarte andrea</i>	-

Era berean, Batzar Orokorraren bilera amaitu ondoren, berritutako Kontseilu Errektoreak lehen bilkura egin zuen. Bertan, karguen izendapena onartu zen, eta **Maite Legarra Eizagirre andrea** izendatu zuten Kontseilu Errektoreko lehendakari, Leire Mugerza Garate andreak kargua utzi ondoren.